

Chivite Lehendakariak malgutasuna eskatu du Nafarroan funtsezkoak diren jarduera ekonomikoaren gainean erabakitzeko


Gainera "gizarte babeserako eta ekonomia sustatzeko neurri gehiago" eskatu ditu jardueren gainean ezarritako muga berrien aurrean

Astelehena, 2020ko Martxoaren 30a



María Chivite, Nafarroako Lehendakaria, "malgutasuna" eskatu du jarduera ekonomikoaren gainean Errege Dekretu berria ezartzerakoan, foru Gobernuari Komunitatean oinarritutakoak diren jarduerak erabakitzeko aukera izan dezan, "gure ehun ekonomikoa ez baita berdina".

Lehendakaria, halaber, azpimarratu du premia nagusiko osasun-materialaren autohornikuntza egin ahal izateko izapideak bizkortu beharra daudela.

 Chivite Lehendakaria agerraldian. Horrela jakinarazi zion Mari Chivitek atzo Espainiako Gobernuaren Lehendakari Pedro Sanchez, arduradun autonomikoekin egindako bideokonferentzian, gaur goizean prentsaurrekoan azaldu duenez.

Nafarroako Lehendakariaren iritziz, "osasuna bermatuaz, nolabaiteko pultsu ekonomikoari eutsi behar zaio, ahal den neurrian; era horretan, errazagoa izango baita ondoren berreraikitzea". Ildo horretan, martxoaren 29ko 10/2020 Legegintzako Errege Dekretuan jarduera ekonomikoa murrizteko ezarritako neurri berriek "babes sozialerako eta ekonomia suspertzeko beste neurri batzuk ere behar dituzte", eta zehaztu behar da "zeintzuk diren ERTE baten baldintzak eta zeintzuk berreskura daitezkeen ordaindutako sariak".

Sektore publikoari dagokionean, María Chivitek aurreratu du Nafarroako Gobernuak jarduera presentziala murriztuko duela, funtsezko zerbitzuak eta lehenengo euskarri direnak emateko lanak egokitzeko.

Nolanahi ere, adierazi du Nafarroako Gobernuak asteazken honetako bileran hartuko dituela Errege Dekretua aplikatzaren inguruan beharrezkotzat jotzen dituen akordioak.

Bestalde, Lehendakaria babestu egin du Espainiak Europar Batasunari "elkartasuna eta erantzunkidetasuna" eskatzeko agertu duen "jarrera zorrotz eta konprometitua". "Egoera oso konplexu eta delikatu honetan, arriskuan dago baita ere Europar Batasunaren etorkizuna", adierazi du María Chivitek, eta honako hau gehitu du: "berreraikitze eta gizarte-kohesiorako lan izugarria egin beharko dugu osasun-aldetik zatirik gogorrena igarotzen denean".

Osasun-arloko autohornikuntza

Adierazi duenez, Lehendakaria atzo berriro eskaera egin zuen premia nagusiko osasun-arloko materialaren autohornikuntzarako mekanismoak azkartzeko, norbera babesteko ekipoei nahiz diagnostikoa egiteko testei dagokienean.

Azkenik, osasun-profesionalen lana goraiatu du. "Gaixoak esku onetan daude, osasun-sistema osoa dena ematen ari baita hunkitzen ari gaituen konpromiso eta profesionaltasunarekin erantzuteko. Are gehiago egoera oso zail hauetan, beti ematen duten erantzuna gainditzen eta ahalegin gehiago eskaintzen ari dira-eta. Eta hori asko eskertzekoa da", ziurtatu du.

Halaber, eskerrak eman dizkie "zerbitzuak eta autohornikuntza artatzeko lanean jarraitzen duten sektore guztietako profesional guztiei. Bitarteko baliabideak hartzeko lanean ari diren establezimendu guztiei; enpresa, profesional, erakunde eta elkarte guztiei; eta laguntzeko eta haien esku dagoena egiteko bere burua eskainiz Gobernuarekin egunero harremanetan jartzen diren partikular guztiei".

📄 La Presidenta valora las nuevas medidas sobre actividad económica